

FUNTSEZKO JARDUERAK



Ekoizpena

Gure funtsezko jarduera, eta oinarrizkoa proiektua aurrera eramateko, APP-aren bitartez **zerbitzu bat hornitzea** da. Ondorioz ez ditugu produkzio fisikoko jarduerarik.



Arazoak Konpontzea

Gure aplikazioa berriztatzailea izatearen eta bertsio **BETA** batean plazaratzearen ondorio nagusiena honen erabilpenaren inguruan **arazoak konpontzea** da. Hori dela eta, gure talde-lana astero hobekuntzak egingo ditu APP-an, **funtzio berriak sartuz eta aurretik zeudenak hobetuz eta zuzenduz.**



Plataforma eta sareko jarduerak

Plataforma eta sareko jarduerari dagokionez, hurrengo lehentasunarekin egingo dira:

- 1. Aplikazioa eguneratuta izatea.**
- 2. Web-guneko mantentze-lanak maiz egitea.**
- 3. Iragarkiak eta publizitatea berritzea eta kudeatzea.**
- 4. Jarduera berritzaileak sortzea proposamena sustatzeko.**

Momentuz ez dira zerbitzurik azpikontratatu, proiektua osatzen duten bazkideen artean lana banatzeko gaitasuna dagoelako.

